

ESKU-HUSKA. Berasaluzek final ikusgarria jokatu zuen: 15 tanto lortu zituen erremate bidez



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Pablo Berasaluze pilota astintzen Gernika Hiria Torneoan, atzo.

Bizkaitarrak nagusitu dira Gernikako torneoko finalean

Berasaluze VIII.a-Zearrak, partida ederra eginda, ez zieten inolako aukerarik eman Unanue-Armendarizi erdilanetatik aurrera (15-22)

Enekoitz Telleria | **DONOSTIA**

Arratsalde biribila izan zen atzokoa Gernikako Santanapera joandako gehienentzat. Pilotazale bizkaitarrez bete zen frontoia, Berasaluze VIII.a-Zearra bultzatu eta euren garaipenaz gozatzeko. Eta gozatu zuten. Gozatu denek, Unanuek eta Armendarizek kenduta. Atzo, partidaren lehen zatian bakarrik eutsi zieten Berasaluze VIII.a eta Zearrari. Hortik au-

rrera, jaun eta jabe izan ziren bi bizkaitarrak. Iaz, Olaizola II.a-Armendarizek irabazi zuten finala Tirapu-Zearraren kontra. Aurten, Armendariz gelditu da saririk gabe eta Zearrak jaso du orduan jasotzerik izan ez zue-na. Atzoko partidako izarra, dena dela, *Pablito* Berasaluze izan zen. 15 tanto lortu zituen Berrizko aurrelariak errematez, eta bi tanto baino ez zituen galdu partida osoan. Ikusgarri.

Eta aurretik eta hobeto, Unanue-Armendariz hasi ziren has-

tez. 5-2, 9-4 eta 10-7 joan ziren aurretik, baina hortik aurrera apurtu zuten lehia bi gazte bizkaitarrek. Seguru eta ondo hasi zen Armendariz, baina kolpe freskoagoz ari zen Zearra. Aukera gehiago zituen Berasaluzek sartzeko, eta ez zen ezkutatut. Era guztietako erremateak egin zituen, joko nahastu zuen eta tantoak egin.

Zearrak ongi kentzen zion pilota Unanueri —finalerdietan

aukera gehiago eman zizkion Peñagarikanok Añorgako ezkertiar errematera sartzeko, baina atzo ez— eta eroso aritu ziren irabazleak. Nabarmen-tzekoa bizkaitarren 21. tantoa. Lau pilotariak aurreko koadroetan lurretik bueltan ibili ostean, Berasaluzek Armendarizi ezkerrez buruz gain pasatu ziona. Uda ederra ari da egiten Pablo Berasaluze eta atzoko izan zen bere lanaren lehen saria, Zearraren lana ahaztu gabe.

ERREMONTEA. Final-zortzirenetako norgehiagoka da, eta Eizagirrerekin jokatu du irabazten duenak

Buruz buruko txapelketako hirugarren partida du gaur Bitoriak, Altuna II.aren kontra

E. Telleria | **DONOSTIA**

Xabier Bitoriak sobera bete du bere eginbeharrarekin buruz buruko Bingo Londres txapelketan, aurten. Inork espero ez zuela sartu zen txapelketan —Iriarteren hutsunea betetzeko— eta inork espero ez zuela gaintitu ditu jada bi kanporaketa. Gaur, orain arteko koskarik zailena izango du: Garikoitz Altuna. Bat, ordea, galtzeko ezer

ez izateak ematen duen patxadaz eta ausardiaz aritzeko moduan da. Bestea, aldiz, lehen partidaren presa eta urduritasunarekin. Amezketarra behin baino gehiagotan lotu dute horiek, eta hasieratik ongi hastea garrantzitsua izango da gaur, horregatik.

Angel Lekunberri (34-35) eta Aitor Agirre *Txikuri* (23-35) kanpora utzita egin du aurrera Bitoriak. Estu eta azken unean ira-

bazi zuen lehenengoa, baina nagusitasun osoz eta oso joko sendoa erakutsita bigarrena. Hazita dago eta oso kontrario arriskutsua bihurtu da orain edonorentzat. Duela hiru urte jokaturako txapelketan ere elkarren kontra aritu ziren Bitoria eta Altuna II.a, eta andoaindarrak irabazi zuen.

Garikoitz Altuna, ordea, dezente hazi da pilotari gisa ordu-tik. Lesioak izan dira haren gurutze bidea, baina denbora mordoxka darama binaka ongi jokatzeko. Iragarpen gehienak bere aldekoak dira, jo handiago duelako eta pilotari gehiago delako. Ea erakusten duen.



IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Garikoitz Altuna Altuna II.a.

ZARAUTZ HIRIA TORNEOA

Titin-Olaizola II.a lehiarekin hasiko da gaur

Inoiz ikusi gabeko partidak dira Zarautz Hiria Torneoan jokatu diren bi finalerdiak. Izan ere, inoiz gutxitan elkarrekin jokatzeko aukera duten pilotariak elkarrekin jarri dituzte bi enpresek, eta udako torneoen artean mailarik handienetakoa duena osatu. Aritzatalde pilotalekuan gaur, Titin III.a-Elkoro Aspekak eta Olaizola II.a-Beloki Asegarcekoak ariko dira (18:00, ETB1). Bihar, Olaizola I.a-Barriola Asegarcekoak eta Goñi II.a-Lasa III.a Aspekak.

Gaurko, beste behin, Titin III.aren eta Olaizola II.aren arteko borrokak sortu du ikusmin handiena. Gasteizko Andra Mari Zuriaren torneoko finalean ere elkarren kontra aritu ziren, eta Armendariz beharrean Beloki izango du gaur lagun Goizuetako gazteak. Elkoro-Beloki lehia horren arabera aritu beharko dute aurrelariak.

ZESTA-PUNTA

Kontinente Artekoaren lehen finalerdia jokatu da gaur, Gernikan

Egiguren II.a-Enbil eta Goikoetxea-Elizegik jokatu dute gaur arratsaldean, Gernikan, Kontinente Arteko Txapelketaren aurreneko finalerdia. Uneotan sasoikoen dauden bi aurrelariak elkarren kontra ikusteko aukera da. Mikel Egiguren joko askorekin dabil eta Goikoetxea txapelduna ere ikuskizuna ematen ari da jokatzeko. Beste finalerdia, bihar jokatu dute A.Arriaga-J.Arriagak eta Bereikua-Kevinek.

JAIALDIK

ATZOKO EMAITZAK

GERNIKA.

Beloki II.a-Albizuri 22; Arbizu-Begino 19. *Gernika Hiria Torneoako finala:* Unanue-Armendariz 15; Berasaluze VIII.a-Zearra 22.

GALARRETA.

Uterga-Lander 35; Martinez-Reklusa 28. Zeberio II.a-Eizagirre 20; Elizalde-Altuna I.a-Aizpuru 16 (min hartu zuen izterrean Eizagirrek, eta bertan behera gelditu zen partida). Bereziartua-Etxeberria III.a 40; Agirresarobe-Urretabizkaia II.a 34.

GAURKO PARTIDAK

ZARAUTZ. 17:00 (ETB1).

Nagore-Pinedo / Etxaniz-Rai.

Zarautz Hiria Torneoako finalerdia:

Titin III.a-Elkoro / Olaizola II.a-Beloki. Badiola III.a-Bernal / Leiza-Galarza VI.a.

ZUGARRAMURDI. 18:00.

Unanue-Errasti / Koka-Armendariz.

AZKOITIA. 17:00.

Salaberria-Bengoetxea V.a / Beloki II.a-Nalda III.a.

Olaizola I.a-Peñagarikano / Esain-Pascual.

CIMBALLA. 18:30.

Capellan II.a-Salaberri / Gabarri I.a-Blancas.

MARKINEZ. 18:00.

Minguez / Telleria. Zabala-Prado / Errandonea II.a-Mendia.

MOREDA. 18:30.

Ansotegi-Jaio / OarArteta-Elola.

LUZAIDE. 18:00.

Goñi I.a-Badiola I.a / Garcia I.a-Fuertes.

JAURRIETA. 18:00.

Ariznabarreta / Errandonea I.a. Esnal-Gabarri II.a / Legorburu-Gorriti.

CHAÑE (Segovia). 18:00.

Urretabizkaia anaiak / Martinez-Txikito IX.a.

ALMALUEZ (Soria). 18:30.

Arroyo III.a-Nicolas / Mikel-Retegi VII.a. Otaegi-Galarza IV.a / Etxaniz II.a-Almandoz.

NEILA (Burgos). 19:00.

Amarika IV.a-Marin II.a / Tripita II.a-Iñurrategi.

GALARRETA. 16:00.

Zeberio III.a-Aizpuru II.a / Zalakain-Gaztelu. *Bingo Londres buruz buruko:* Altuna II.a / Bitoria.

Zeberio II.a-Iriarte / Ezkurra-Urko. Kalonge-Auzmendi / Sarasua-Txikuri.

GERNIKA. 17:00.

Berraondo-Egiguren / Beheretxe-Alberdi. Kontinente Artekoaren finalerdia:

Egiguren II.a-Enbil / Goikoetxea-Elizegi. Alberdi II.a-Goitia / Konpa-Barrondo.